



LAB, STEILAS eta ELA sindikatuok Haurreskolak Partzuergo publikoko gerentea kargutik kentzea eskatzen diogu Hezkuntza sailburuari

Gaur, hilak 5, Haurreskolak Partzuergoko ikasturteko Batzar Nagusia bilduko da. Bertan, Jokin Bildarratz lehendakaria duen Zuzendaritza Batzordeaz gain, Haurreskolak Partzuergoaren kide diren udaletako ordezkariak bilduko dira. Nabarmendu behar dugu Haurreskolak Partzuergoaren etorkizunari eta haurren eta familien beharrei buruzko eztabaida sustatzen ez duen foroa izateaz gain, bilera hori aurrekontu-partidak onartzera mugatzen den esparru bihurtu duela Administrazioak berak. Horrez gain, udalen bozken muga salatu behar dugu, Hezkuntza Sailak baitu bozka kopuruaren gehiengoa.

Bukatzeaz dagoen ikasturtea berezia izan da oso, eta, pandemia bete-betean, Haurreskolak Partzuergo publikoko gerentea den Zorione Etxezarragak ez bezala, langileok eta familiak arduraz jokatu dugu. Ardura falta horrek izugarri kezkatzen gaitu.

Izan ere, Hezkuntza Sailak 2020ko urtarrilean izendatu zuen Zorione Etxezarraga Haurreskolak Partzuergo publikoko gerente ate birakarien bitartez, hezkuntzaren esparruan inongo ezagutzarik izan gabe; zer esanik ez 0-3 zikloaren gainean. Harrezkero, zerbitzu publiko horren noraeza izugarria izan da. Hezkuntza zerbitzu publiko horren funtzionamendu egokia eta bideragarritasuna bilatu baino, aurrekontura nola mugatu izan da bere helburu bakarra. Horretarako langileon, haur eta familien eskubideen ginetik pasa da hainbatetan, lotsarik gabe. Horrela onartu zuen ikasturte hasieran Legebiltzarrean, langileok mobilizazio dinamikan murgilduta geundenean, egin zuen agerraldian: "Ez zuen langileekin sinatuta dagoen lan hitzarmena betetzen, dirua ez zitziolako heltzen."

Gerente kargua hartu zuenetik negoziazio kolektiboa bahituta izan du eta langileok 8 greba egun egin behar izan ditugu blokeoa gainditzeko eta Lan Hitzarmen berriaren negoziatioari ekiteko. Hala eta guztiz ere, negoziatioaren hastapenetan mahai negoziatzaileetan agerian geratu da Hezkuntza Saila eta gerentziaren arteko koordinazio eza. Ondorioz, negoziatioak erritmo mantsoegia hartzeaz gain, trabak besterik ez ditugu aurkitu bileraz bilera.

Halaber, etengabean saihestu nahi izan du langileen ordezkariekin elkarriketa. Lan sindikala etengabean oztopatu du, sindikatuak informatu gabe eta deialdirik gabeko batzordeak sortu ditu, adostu gabeko prozesuak abian jarri ditu, informazioa ezkutatu su, etab. Zerbitzuaren, familien eta hezitzaileen kaltetarako erabakiak hartu eta hurrengo egunean bertan behera utzi ditu baita ere, hezkuntza komunitatearen kexak tartean. Ikasturte bukaeran gauden honetan, besteak beste, oraindik ez dakigu zein irizpideren baitan hornituko diren haurreskolak hezitzailez datorren ikasturtean.

Hori guztia kontuan harturik, gaur Bilboko Hezkuntza Ordezkaritzan egin dugun eskaeraren bidez, Jokin Bildarratz Hezkuntza Sailburua eta Haurreskolak Partzuergo publikoaren Lehendakariari dagokion erantzukizuna bete dezala exijitzen diogu: berandu baino lehen, Zorione Etxezarraga gerentea kargutik kendu eta Hezkuntza Sailean Haurreskolak Partzuergoaren integrazio adostua negoziatzen has dadila eskatzen diogu. Horrela, lanpostuak egonkortzeaz gain, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloari (0-3ari, alegia) hezkuntza sisteman aspaldi zor zaion tokia aitortuko litzaioke, udalen eskumena handituz eta familia eta haurren beharretara egokituz.

Era berean, gogora ekarri nahi dugu 2018an Legebiltzarrak 18.000 euro baino errenta baxuagoa duten familientzako haurreskolen doakotasuna onartu eta doakotasun osorantz urrats gehiago ematea eskatu zuenetik, Eusko Jaurlaritzak ezer gutxi egin duela. Beraz, hurrek aukera berdintasunean hezkuntzarako duten eskubidea bermatzeko doakotasun osorako beharrezko urratsak emateko garaia badela uste dugu.

LAB, STEILAS eta ELA sindikatuak
2021eko uztailaren 5ean